


ZEZENAK OROZKO'N



ZEZENAK OROZKO'N

IBARREAN ETA ZUBIARREAN.—Ez toki baten bakarrik, bitan be bai, Ibarra'n Andra Marietan eta Zubiaur'en San Antolin'etan. Emen il be egiten dabez, España'ko edozein enparantzatan lez.

Zezenak ez dira Andaluzia'ko larretakoak izaten, Errioxa'ko zezen txiki bizkorak baiño.

Ibarra'n barriz, Gorbei'ko bei argal maltzurak zezenkatzen. dabez. Il ez dabez egiten, baiña amorratuazoteko min aundiak emon bai, ziriak ziriak sartuez.

* * *

UDAL-OARRA.—Aurten senideak deitu. eusten Ibarra'ko jaietara eta, jakiña, zezenak ikustera.

Egia esan, zezep.etarako iguiña ta gorrotoa dau.kadaz.

Alan eta be, ni txikia nintzala, neuk eta ni lako mutil koskorak poz aundia artzen genduan udaletxeko ziñegotziak, bere kapela ta kapu.saiez jantzita, Meza-ostean, elaiizpean, Andra Mari'ko jaiak baiño iru domeka lenago, zezenak izango zizala jakin-azoten euskunean.

* * *

EUSKAL JAIA?—Ez clot uste zezenak euskal-ikusgaia diranik.

Arana ta Goiri'tar Sabin be ez zan zezen-jaiaren laguna eta Ibarra'ko Felix Letona ta Ezekieli Errotaetxe areri lenengoz Bizkaia'n autarkia emon eutsoenak be ez.

Bartolome Letona, Deustu'ko alkatea, Felix Letona'ren osabea, Sabin'en adiskide aundia zanak be ez eban zezenik onartuko.

España'ko dan eta arabiarrakandik artutako oitura anker, iguingarri ori Euzkadi'tik aldentu ta baztertu egin bear geunke.

Onetan gure alde aurkitu doguz Lagundi abere-babesleak.

*

ORDEZ ZER?—Ikusgai orren orde zergaitik ez dozue Orozko'tar guztiok pelotari, futbolista edo txirringulari-zaletasuna sortu, bizkortu ta berrotuten? Edo ugartegi (pizina) bat egin or pie-sapean esaterako?

* *

ATXETA.—Zer egiten dabe Atxeta'tarrak? Len ain abertzale ta jeltxide ziran Atxeta'tarrak?

Auteskundean beti etxe aundi orretan egiten eben abertzaleak bazkaria. Orain Atxeta, Sabin Arana'ren lagun etxe aundi ta oroigarria, jaus-tendago, eta Iturbe'tar Felix'ek etxaguntza emongo eutsan esan. arren., Euzkadiko oitorea dan lez, amak, gitxi laguntzen eutsala ta, Atxeta berari emon bearrean., seme-alabai bardiñez itxi eutsen eta orrelan Atxeta iñork ez dau barriztau gura, zori txarrez.

Felix'ek ba euken barriztatzeko asmoa, an txalet eder bat egiteko be bai. Edo obeto ba'letor, len.engotan zan lez, euskal-etxearen itxuraz, kamiño aurre-alderantz begira-tokia, masti ederre-z apainduta, ainbat bidar Bilbo'ko m. argolariak margoztua., Bizkai'ko erti-tokian gordeta egongo dana.

EGILUZE'K

BIZKAI'KO ADITZA IKASTEKO
«EUSKAL-ADITZA BIZKAIERA»

2—argitaraldia
Salgai liburutegietan
eta egilleak berak
PUXANA